Vi editorearen eskuliburu txikia

Egilea: kurtsik kurtsik_x@euskalerria.org

1.01 bertsioa 2003-08-05

Dokumentu hau GPL lizentziapean dago. Nahi duzun beste kopia eta aldaketa egin dezakezu, hori bai, jatorria aipatzea eskertzen dizut. Baita zuzenketak, iradokizunak eta aholkuak, horretarako goiko helbidera idatzi.

LDP-eus : http://www.librezale.org

Gaur egun ohituta gaude testu editore grafikoak erabiltzen: botoiak menuak eta koloreekin; oso tresna eroso eta ikusgarriak dira. Badira, dena den, ingurune grafikotik kanpo dauden beste editore batzuk, oso arinak dira eta aukera gehiegirik gabekoak, baina aldi berean erabat funtzionalak Hauen balioa argi ikusiko dugu inguruurune grafikoa abiarazi ezinean bagabiltza

edo X zerbitzaririk gabeko makina bat administratu behar badugu. Azken hauen artean dago Vi editorea.

Oharra: hemen azaldutakoak berdin balio du *Vi* eta *Vim*entzat (*Vi* hobetua).

ERABILPENA

Erabiltzeko, lehenengo gauza, editorea abiaraztea da ;-). Horretarako bi aukera dago; dagoen artxibategi bat ireki edo berri bat sortu. Dagoen bat irekitzeko vi bidea/artxibategiaren_izena idatziko dugu konsola batean eta artxibategia zabalduko da



Berri bat sortzeko vi idatzi konsola batean eta amaitutakoan gorde.

Behin barruan egonda jakin behar dugu bi modu dagoela: bat testua sartzeko modua (abiaraztean defektuz dagoena) eta bestea komando moduan (kontuan eduki editore honetan ez dagoela menurik, moduren bat behar da aginduak sartzeko). Testua sartzeko modua abiatzeko 'i' tekla sakatuko dugu eta idazten hasiko gara, berriro komando modura pasatzeko 'esc' baino ez dugu sakatu behar.

Vi editorea ixteko aukera batzuk dauzkagu, beti ere **komando moduan** :

:q+intro = editorea itxi.

:q! = artxibategia gorde gabe itxi.

:wq = gorde eta irten.

:w+bidea/artxibategiaren_izena+intro = artxibategia gorde.



Beheko abisua agertuko zaigu baimenik gabe fitxategi bat aldatzen saiatzean.

Beno, ba testu editore honek ez du misterio gehiagorik, beraz jarraian komandoen zerrenda txiki bat.

KOMANDO BATZUK

1-TESTUA SARTZEKO:

*a :kursorearen eskuinean sartzen du. *I :lerroaren hasieran sartzen du.

*A :lerroaren amaieran sartzen du. *O :kursoaren gainean lerroa irekitzen du.

*o :kursorearen azpien lerroa irekitzen du.

*R :edizio pantailan sartzen da eta testua ordezkatzen du. Ateratzeko esc.

*r :karaktere bat aldatzen du.

2-KURSOREAREN MUGIMENDUA:

*Geziak.

3-TESTUAN ZEHAR MUGITZEKO:

*w :hurrengo hitzera mugitu.

*0 :lerroaren hasierara mugitu.

*$:lerroaren amaierara mugitu.

*Ctrl+f :pantaila oso bat aurrera.

*Ctrl+b :pantaila oso bat atzera.

*G :artxibategiaren amaierara.

4-BILATZEKO:

*fx :x karakterea bilatzen du eskuinerantz.

*Fx :x karakterea bilatzen du ezkerrerantz.

*/testua :testua bilatzen du beherantz.

*?testua :testua bilatzen du gorantz.

*/tes :tes-ez hasten den edozein hitz bilatzen du .

*tua$:tua-z amaitzen den edozein hitz bilatzen du.

5-EZABATZEKO (MOZTEKO):

*x :kursorpean dagoen karakterea ezabatzen du.

*dw :kurtsorea dagoen hitza ezabatzen du.

*d$:lerro amaieraraino ezabatzen du.

*dG :kursoretik testu amaieraraino ezabatzen du

*c :kurtsoretik lerro amaieraraino ezabatzen du eta insertzio moduan jartzen da.

6-TESTUA KOPIATZEKO:

*yy :lerro osoa kopitzen du izenik gabeko bufferrean.

*yw :hitz bat kopiatzen du izenik gabeko bufferrean.

*y$:kursoretik lerro amaieraraino kopiatzen du.

*“tyy :lerro bat kopiatzen du „t“ izeneko bufferrean.

*“tnyy :“n“ lerro kopiatzen du „t“ izeneko bufferrean.

7-TESTUA PEGATZEKO:

*p :izenik gabeko bufferra kurtsorpean pegatzen du.

*“tp :“t“ izeneko bufferra kursorpean pegatzen du.

*“tnp :“t“ izeneko bufferraren „n“ kopia pegatzen du kursorpean.

8-DESEGIN ETA BERREGIN:

*u :azken komandoa desegiten du.

*:e! : diskoan dagoena berkargatzen du.

*. :azken eragiketa errepikatzen du.

9-BESTE BATZUK:

*:r artxibategia :artxibategi baten edukia irakurtzen du eta kursorpean pegatzen du.

*:!komandoa :editoretik UNIX komando bat egikaritzen du.

*:set number :lerroetan numerazioa jartzen du.

*:set list :lerro guztien amaieran „$“ jartzen du.

*:set all :editorearen konfigurazioa erakusten du.